



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 15a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—11-23/LEY-00008. Foru Lege Proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Tributuiei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko. Zuzentarau horren bidez, aldatu egin zen 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-23/DEC-00015. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasun eta babes osoa adierazi nahi baitizkie irailaren 10eko ekaitz bortitzek kaltetutako pertsoneri eta herriei. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—11-23/DEC-00016. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babes osoa adierazi nahi baitizkie Marokoko herriari, lurrikarak eragindako hondamendi ikaragarriatik. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-23/PES-00083. Galdera, Nafarroako autobus-zerbitzu berriari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).

—11-23/PES-00084. Galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharraren Estellerriko tartea Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).

—11-23/PES-00085. Galdera, Muesko presa erromatarren ingurua Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).

—11-23/PES-00086. Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariaren bateraezintasunari buruzkoa, merkataritza-sozietate batean administratzaile bakarraren kargua betetzeari dagokionez. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (13. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Mahaiak 2023ko irailaren 4an hartutako erabakia, zeinaren bidez aldatzen baita osoko bilkuren egutegia zehazteari, kontroleko osoko bilkuretarako interpelazioak banatzeari eta txandei buruzko erabakia (14. or.).
- Mahaiaren erabakia, genero-indarkeriaren aurkako elkarretaratze isilak direla-eta (15. or.).
- PER2022047. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

11-23/LEY-00008. Foru Lege Proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko. Zuzentarau horren bidez, aldatu egin zen 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2023ko irailaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, honako Foru Lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: Foru Lege Proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko. Zuzentarau horren bidez, aldatu egin zen 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila. Proiektu horren bidez aldatzen da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko. Zuzentarau horren bidez, aldatu egin zen 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa.

2. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik 10 egun balioduneko epea irekiko da, **2023ko urriaren 2ko eguerdiko 12:00etan bukatuko dena**. Epe horre-

tan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege Proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko. Zuzentarau horren bidez, aldatu egin zen 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa

Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak (aurrerantzean, DAC 7), fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duenak, helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta lankidetzaren administratiborako dagoen esparrua hobetzea, bai eta lankidetzaren administratiboa beste eremu batzuetara zabaltzea ere, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei heltzeko eta zerga administrazioei zergen bilketa modu efizienteagoan egiten laguntzeko. Horretarako, informazioa emateko betebeharrak berri bat ezartzen da plataforma digitalen operadoreei dagokienez.

Era berean, DAC 7-ren transposizioak honako hau arautzeko beharra sortzen du: baterako ikuskapenen araubidea, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako funtzionarioek Espainian –eta alderantziz– presentzia izateari buruzko gai zehatz batzuk, eta aldibereko kontrolak. Arlo honetako foru araudiak Tributuei buruzko Lege Orokorrean ezarritakora igortzen duenez, ulertuko da lurralde erkideko araudian funtzionarioez eta zerga administrazioaz egiten diren aipamenak Nafarroako funtzionarioez edo, hala badagokio, Foru Zerga Administrazioaz eginak direla, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako eskumen eta eskudantzien araber.

Bestalde, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharrari dagokionez, aldaketa puntual bat egiten da foru araudian: betebeharra duten bitartekariak pertsona fisikoa den zergapeko interesdun orori jakinarazi beharko diete ezen zergapeko horri buruzko informazioa zerga administrazioari emanen zaiola eta 2011/16/EB Zuzentarauari jarraikiz transferituko dela.

Gainera, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko azken betebeharrak horri dagokionez, beharrezkoa da haren araubide juridikoa aldatzea, Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna sinatu baitu Espainiak, informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei buruzko informazioa automatikoki trukatzearen gainekoa, bai eta, ELGAren barruan informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei heltzeko, informazioaren nahitaezko komunikaziorako haren eredu arauak ere. Horren helburua da zerga administrazioak behar den informazioa izatea informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoen trukea, akordio horretan arautzen dena, egin ahal izateko.

Era berean, partikularren arteko betebeharrak, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharrak horrek eragindakoak, aldatu egin behar dira Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (Sala Nagusia) C-694/20 auzian 2022ko abenduaren 8an emandako epaiaren ondorioz. Epai horrek deklaratu duenez, abokatuen kasuan Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren 7. artikulua urratzen du Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak (Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 (EB) Zuzentarauak

aldatutako bertsioan, hau da, DAC 6 izenaz ezagutzen dena), zehazki, haren 8 bis ter artikuluko 5. apartatua jasotako betebeharrak –sekretu profesionalaren babespean dauden bitartekariak ezartzen zaiena, beren bezero ez diren gainerako bitartekariak sekretu horren erabilera jakinarazteko–. 2011/16/EB Zuzentaraua fiskalitatearen arloko lankidetzaren administrazioari buruzkoa da eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen du. Jurisprudentzia hori jasotze aldera, aldatu egin da plangintza fiskaleko zenbait mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharraren araubidea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakoa betetzeko, foru lege hau premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera egin da.

Premiaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen dira; izan ere, beharrezkoa da Kontseiluaren 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egitea, bai eta inplementatzea ere Espainiak izenpetu duen Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna –ELGAren esparruan plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko helburua duena-, lege- eta erregelamendu-maila duten ordenamenduko zenbait arau aldatuz.

Proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen da; izan ere, hertsiki eskatutako helburuei erantzuteko modua baino ez da bete, eta hartzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak beren helburuak betetzeko behar-beharrezkoak direnak baino ez dira.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, testuak gainerako foru ordenamendu juridikoarekin eta Europar Batasunekoarekin koherentzia izatea bermatu da. Izan ere, lege-arauak Europar Batasuneko araua Espainiako Zuzenbidean txertatzeko beharrari erantzuten dio.

Gardentasunaren printzipioa bermatu da, azalpen honen xedea eta helburua argi identifikatzen baitira eta proiektua eta memoria Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu baitira, herritarrek testua ezagutu ahal izan dezaten entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean.

Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokionez, ahalegina egin da arauak ahalik eta administrazio karga gutxien izan dezan herritarrentzat eta zeharkako kostu gutxien ere bai, horrela baliabide publikoen arrazoizko erabilera sustatu direla.

Artikulu bakarra. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra aldatzea.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren agindu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. Hamaseigarren xedapen gehigarrian 3. apartatua gehitzen da:

“3. Aurreko apartatuetan lurralde erkideko araudira igortzen delarik, ulertuko da araudi horretan funtzionarioez eta zerga administrazioaz egiten diren aipamenak Nafarroako funtzionarioez edo, hala badagokio, Foru Zerga Administrazioaz eginak direla, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako eskumen eta eskudantzien arabera”.

Bi. Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria, 1., 2. eta 3. apartatuak, eta 6. apartatua gehitzea:

“1. Aintzat hartuta, batetik, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak –fiskalitatearen arloko lankidetzaren administrazioari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena–, 3. artikuluan 21. eta 22. apartatuetan ezartzen duena, bestetik, Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna –informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei buruzko informazioa automatikoki trukatzearen gainekoa, eta informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei heltzeko, informazioaren nahitaetzko komunikaziorako haren ereduak –, bai eta helburu bererako izenpetutako nazioarteko beste akordio batzuk ere, betebeharraren ondorioetarako bitartekari edo zergapeko interesdun diren pertsonak edo entitateek honako informazio hau eman beharko diote zerga administrazioari, foru lege honen 27.5 eta 103. artikuluetan xedatutakoaren arabera eta tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezarritako baldintzetan:

a) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.18 artikuluan definitutako mugaz gaindiko mekanismoetan esku hartzen edo parte hartzen badute, horiei buruzko informazioa, aipatutako zuzentarauaren IV. eranskinean zehaztutako bereizgarrietako batzuk gertatzen direnean.

b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.24 artikuluan aipatzen diren mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarrien eguneratzeari buruzko informazioa.

c) Plangintza fiskalerako mugaz gaindiko mekanismoak, a) eta b) letretan aipatzen direnak, Espainian erabiltzeari buruzko informazioa.

d) Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztunean – informazioa komunikatzeko estandar komunaren eta lurraldez kanpoko egitura opakuen informazioa saihesteko mekanismoei buruzko informazioa automatikoki trukatzearen gainekoa– eta helburu bererako izenpetutako nazioarteko beste akordio batzuetan zehazten diren mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa.

Informazioa emateko betebeharraren ondorioetarako, ez dira deklaratu beharreko plangintza fiskalerako mugaz gaindiko mekanismotzat hartuko mugaz gaindiko akordio, negozio juridiko, eske-ma edo eragiketak, oinarrituta badaude Europako Batzordearen erabaki bidez komunikatu eta berariaz baimenduta dauden araubide fiskaletan.

2. Sekretu profesionala dela-eta informazioa emateko betebeharratik –Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter.5) artikuluan eta aipatutako ereduak –, jasotzen dena– salbuesita egonen dira bitartekaritzat hartzen direnak, egindako jarduera edozein dela ere, aholkulari lanak egin badituzte mugaz gaindiko mekanismo baten diseinuan, merkaturatzean, antolaketan, gauzatzeko eskura jartzeko, edo hura gauzatzeko kudeaketan, haien helburu bakarra izanik mekanismoa aplikagarria den araudiarekin bat datorren ebaluatzea, baina haren ezarpenean lagundu gabe.

Sekretu profesionalaren betebeharraren bitartekaria betebeharratik libre gelditzen ahalko da interesdun den zergapekoak modu fede-emailean komunikaturik emandako baimenaren bitartez.

3. Bitartekariak betetzea plangintza fiskaleko mekanismoei buruz informatzeko betebeharraren bitartekariak jasotzeko, 2011/16/EB Zuzentarauan eta aipatutako Akordio Aldeaniztunean jasotakoa, lege beharturiko moduan, ez da izanen –aplikagarria den araubide juridikoarekin bat– kontratuz edo araudiz ezarritako informazio-zabalpenaren gaineko murriztapenen urraketa, eta betebeharraren bitartekariak ez die inolako erantzukizunik ekarriko informazio horren titular den zergapeko interesdunarekiko”.

“6. Xedapen honetan xedatutakoaren arabera informazioa ematera behartuta dagoen bitartekari orok jakinarazi beharko dio informazioa emateko betebeharraren bitartekari duen eta pertsona fisikoa den zergapeko interesdun bakoitzari ezen zergapeko horri buruz eskatutako informazioa zerga administrazioari emanen zaiola eta 2011/16/EB Zuzentarauaren eta xedapen honetan adierazitako

nazioarteko akordioen arabera transferituko dela. Era berean, bitartekariak behar besteko aurrerapenaz emanen dio pertsona fisikoari hark jasotzeko eskubidea duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea baliatu ahal izan dezan, eta, betiere, berak bildutako informazioa zerga administrazioari eman aurretik”.

Hiru. Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria, 1. apartatua eta 3. apartatuko a) letra:

“1. Sekretu profesionalaren betebeharra dela eta plangintza fiskalerako mugaz gaindiko mekanismoen aitorpena aurkeztetik salbuetsita dauden bitartekariak behartuta egonen dira salbuespen horren berri modu fede-emailean ematera bere bezeroei, mekanismo horietan parte hartzen duten beste bitartekari batzuk izan nahiz zergapeko interesdunak izan”.

“a) 1. apartatua aipatzen den komunikazioa ezarritako epean ez egitea edo komunikazioa egitea datuak isilduta edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak sartuta.

Arau-haustea 600 euroko diruzko isun finko batez zehatuko da.

Komunikazioa epe barruan ez egiteaz gain, dagokion plangintza fiskalerako mugaz gaindiko mekanismoaren aitorpenik –hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1.a) apartatua aipatzen dena– ez badu egiten zergapeko interesdunak, komunikazioa egin izan balitz aitorpena aurkeztu beharko zukeenak, zehapena izanen da aipatutako aitorpena ez aurkezteagatik arau-hausteari dagokiona, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren 4.a) apartatua aurreikusiten dena”.

Lau. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzea:

“Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Informazio-betebeharra eta arazoizko arretaren betebeharra, elkarlaguntzaren esparruan betebeharra duten plataforma-operadoreen aitorpen informatiboari dagokionez.

1. “Informazioa komunikatzera behartuta dauden plataforma-operadore” izaera duten entitateek Estatuko araudian ezarritako arazoizko arretari buruzko arauak eta prozedurak aplikatu beharko dituzte, eta informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak bete, xedapen honetan aipatutako araudiaren arabera. Plataforma-operadore horien izaera xedatutakoaren arabera da: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua –Fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena–, zehazki 8 bis qua-

ter artikulua eta V. eranskina, bai eta plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko Agintaritzza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna eta plataforma-operadoreek elkarlaneko ekonomiaren eta noizbehinkako lan-ekonomiaren esparruko saltzaileei buruzko informazioa komunikatzeko arauen eredia eta helburu berarekin izenpetutako nazioarteko beste akordio batzuk ere.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudiaren arabera “saltzaile” izaera duten pertsonak edo entitateek arazoizko arreta egokiari buruzko arauak eta prozedurak aplikatzeak dakartzan betebeharrak bete beharko dituzte.

Lehen paragrafoan aipatzen diren informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak erregelamendu bidez garatuko dira.

Xedapen gehigarri honetan eta berau garatzeko araudian erabilitako terminoek erregelamenduz ezarritako esanahia izanen dute, besterik ezarri ezean.

2. Xedapen gehigarri honen 1. apartatua informazioa erregistratzeko eta emateko ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arau-haustea eta zehapenak foru lege honen III. titulu VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko dira, xedapen honetan ezarritako berezitasunekin.

Zerga arloko arau-hauste astuna da Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren arabera Europar Batasunean ez erregistratzea “informazioa komunikatzeko betebeharra duen plataforma-operadorea”, aipatutako zuzentarauaren V. eranskineko I. ataleko A apartatuko 4. puntuko b) letran aipatzen dena, baldin eta horren ondorioz Espainiako Zerga Administrazioak ez badu jasotzen epean jaso behar zuen informazioa, Espainiako lurraldeko egoiliarren diren “informazio komunikatzeko betebeharra duten saltzaileei” buruzkoa edo lurralde horretan kokatutako ondasun higiezinari buruzkoa. Zehapena diruzko isun bat izanen da, foru lege honen III. tituluko VI. kapituluaren xedatutakoari jarraikiz informazio hori ez emateagatik zegokiokeena hiru halakoa.

3. Zerga arloko arau-haustea da “informazioa komunikatzeko betebeharra duten plataforma-operadoreek” 1. apartatua aipatzen diren arazoizko arretari buruzko arauak eta prozedurak ez betetzea.

Zehazki, apartatu honen ondorioetarako, arau-haustetat hartuko da arazoizko arretaren prozedurek eragindako betebeharrak ez betetzea edo

oker edo epez kanpo betetzea, honako hauei dagokienez:

- a) Berrikusi behar ez diren saltzaileak zehaztea.
- b) "Saltzaileari" buruzko informazioa biltzea.
- c) "Saltzaileari" buruzko informazioa egiaztatzea.
- d) "Saltzailea" zein estatutako egoiliarra den zehaztea.
- e) Alokutatutako ondasun higiezinari buruzko informazioa biltzea.

Apartatu honetan aurreikusitako zerga arloko arau-haustea astuna izanen da, eta 200 euroko diruzko isun finko batez zehatuko da, arrazoizko arretari buruzko arauak eta prozedurak aplikatzeak eragindako betebeharrak bete ez diren "saltzaile" bakoitzeko.

"Informazioa komunikatzeko betebeharra duen plataforma-operadore" batek kanpoko zerbitzu-emaile bat baliatzen badu arrazoizko arretari dagozkion betebeharrak betetzeko, betebeharrekin operadore horren erantzukizuna izaten jarraituko dute.

4. Zerga arloko arau-haustea da "saltzaileek" nahitaezko informazioa epean ez komunikatzea edo informazio faltsua, osatugabea edo zehaztugabea komunikatzea "informazioa komunikatzeko betebeharra duten plataforma-operadoreei", aurreko apartatuan aipatzen diren arrazoizko arretako prozedurak operadoreak aplikatzeak eragindako betebeharrak betetz.

Apartatu honetan aurreikusitako zerga arloko arau-haustea astuna da, eta 300 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da.

5. "Saltzaile" batek "informazioa komunikatzeko betebeharra duen plataforma-operadoreari" arrazoizko arretako arau eta prozeduren arabera exijitutako informazioa ematen ez badio, operadorearen hasierako eskaera gogoratzeko bi ohartarazpen jaso ondoren eta hasierako eskaera egin zenetik 60 egun naturaleko epea igaro ondoren, operadore horrek "saltzailearen" kontua itxiko du eta plataforman berriz erregistratzea eragotziko du edo "kontraprestazioaren" ordainketa atxikiko dio eskatu zitzaion informazioa eman arte.

6. Zerga administrazioak erabakiko du dagoen erregistroan kautelazko baja ematea "informazioa komunikatzeko betebeharra duen plataforma-operadoreari", Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren V. eranskinen I. ataleko A apartatuko 4. puntuko b) letran aipatzen denari, 1.

apartatuan aipatzen den informatzeko betebeharra betetzen ez duenean, bi errekerimendu egin ondoren. Baja gehienez 90 egun naturaleko epean egingen da, bigarren errekerimendutik hasita, baina inoiz ez horretatik 30 egun natural igaro baino lehen.

Baja ematea erabaki ondoren, operadoreak alta berriz jaso ahal izateko, zerga administrazioari berme egokiak eskaini beharko dizkio, informazio-betebeharra betetzeko konpromisoa hartzeko, eman gabe dagoen informazioa barne. Ondorio horietarako, zerga administrazioak berme egokitzat jotzen ahalko du erantzukizunpeko adierazpen bat edo zerga arloko araudian ezarritako beste edozein berme. Zerga administrazioak berme horiek egokiak direla erabakitzen ahalko du, haien errolda-egoera egiaztatu ondoren, hala badagokio, III. tituluko 2. atalean aurreikusitako egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan bitartez.

7. Betebeharra dutenei exijitzen ahal zaizkien adierazpenak, dokumentu-frogak, erregistroak eta beste edozein informazio, arrazoizko arretako prozedurak aplikatzeko eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak betetzeko erabiltzen dena, gorde egin beharko dira eta zerga administrazioaren eskura eduki, informazioa eman den erreferentzia-aldia amaitu eta hurrengo 10 urteetan.

Foru lege honen arau orokorren arabera xedapen gehigarri honek aipatzen dituen informazioa erregistratzeko eta emateko betebeharrak egiaztatze eta ikertzeko ahalmenak ukatu gabe, zerga administrazioak egiaztatu eta ikertzen ahalko du "informazioa komunikatzeko betebeharra duten plataforma-operadoreak" aplikatu beharreko arrazoizko arretaren arauak eta prozedurak betetzen diren.

8. "Informazioa komunikatzeko betebeharra duen plataforma-operadore" guztiek adierazi beharko diote informazioa komunikatu behar duen eta pertsona fisikoa den "saltzaile" bakoitzari hari buruzko informazioa –Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis quater.2 artikuluan eta Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztunean, plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeari buruzkoan aipatutakoa– emanen zaiola zerga administrazioari eta transferituko zaiola Batasuneko estatuari, dagokionari, aipatutako zuzentarauari jarraikiz. Era berean, operadoreak behar besteko aurrerapenez emanen dio pertsona fisikoari esku bidez jaso behar duen informazio guztia, hark bere datu pertsonalak babesteko eskubidea bali-

tu ahal izan dezan, eta, betiere, berak bildutako informazioa zerga administrazioari eman aurretik”.

Azken xedapenetako lehena. Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.

Foru lege honen bidez foru zerga araudian txertatzen da Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, zeinaren bidez aldatzen baita 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Nolanahi ere, lehenengo apartatua, bigarren apartatua (6. apartatu berriari dagokionez) eta laugarren apartatua 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/DEC-00015. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasun eta babes osoa adierazi nahi baitizkie irailaren 10eko ekaitz bortitzek kaltetutako pertsoneri eta herriei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasun eta babes osoa adierazi nahi dizkie irailaren 10eko goizaldean –igandea– Nafarroako zenbait herritan gertatu ziren ekaitz bortitzek kaltetutako pertsoneri eta herriei.

2. Nafarroako Parlamentuak eskerrak eman nahi dizkie udal ordezkariari, zerbitzu publikoetako langileei, boluntarioei eta bizilagunei, beren herrietan normaltasuna berreskuratzeko egiten ari diren lanetatik.

3. Kaltetutako eremuak leheneratzeko lege ezarrita dauden tresnak balia daitezkeen eskatzen du Nafarroako Parlamentuak, babes zibileko larrialdi batek larriki kaltetutako eremua barne.

4. Nafarroako Parlamentuak gertakari meteorologikoen ondoriozko balizko kalteak murrizteko eta horiei aurrea hartzeko ahalmena etengabe hobetzearen alde egiten du".

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/DEC-00016. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazi nahi baitizkio Marokoko herriari, lurrikarak eragindako hondamendi ikaragarriagatik

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazi nahi dizkio Marokoko herriari, lurrikarak herrialdearen eremu zehatz batean eragindako hondamendi ikaragarriagatik. Elkartasun hori gure erkidegoan bizi diren marokoar guztiei ere adierazi nahi die.

2. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta nahigabe sakona helarazi nahi dizkie hildakoen familiei eta gertukoei, bai eta bere hurbiltasuna eta atsekabea ere.

3. Nafarroako Parlamentuk zauritu guztiei opa die laster senda daitezen, eta sakonki deitoratzen ditu izan diren kalte materialak.

4. Nafarroako Parlamentuak bere errespetua eta mirespena adierazi nahi dizkie erreskate eta salbamendu lanetan ari diren erakunde eta pertsona guztiei, eta haien esku jartzen du laguntzeko eskain dezakeen oro.

5. Nafarroako Parlamentuak Marokoren Madrilgo enbaxadari helaraziko dio adierazpen hau, egoki iritzitako bide diplomatikoak baliatuta Marokoko Erresumari helaraz diezaion".

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00083. Galdera, Nafarroako autobus-zerbitzu berriari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako autobus-zerbitzu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Duela zenbait hilabete autobus zerbitzu berria ezarri zen Nafarroan, eskaria egon badagoelako Nafarroako hainbat tokitatik hiru unibertsitate-kanpusetara joan behar duten ikasleen aldetik, bereziki Tuteratik Iruñera eta alderantziz.

1.- Zergatik ez da ezarri geltoki bat kanpusen inguruetan eskari hori ahalbidetzeko, ospitale-eremutik gertu ezarri den bezala?

2.- Zer zuzemen egin ditu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00084. Galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharraren Estellerriko tartea Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharraren Estellerriko tartea Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Vasco-Navarro trenbide zaharraren Estellerriko tartea Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari begira egindako urratsak eta egungo egoera.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/PES-00085. Galdera, Muesko presa erromatarren ingurua Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Muesko presa erromatarren ingurua Kultur Intereseko Ondasun izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da Muesko presa erromatarren ingurua Kultur Intereseko Ondasun izendatzea?

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/PES-00086. Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariaren bateraezintasunari buruzkoa, merkataritza-sozietate batean administratzaile bakarraren kargua betetzeari dagokionez

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariaren bateraezintasunari buruzkoa, merkataritza-sozietate batean administratzaile bakarraren kargua betetzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Merkataritza Erregistroak emandako informazioaren arabera, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Oscar Chivite Navascués jauna 2023ko irailaren bostean LAUBURU, SL merkataritza-sozietatearen administratzaile bakarra da, eta hori Goi Karguen Bateraezintasunei buruzko Foru Legean adierazitakoaren aurka doa inondik ere.

Ohartzen al zara kontseilaria legezketasunaren aurkako egoeran dagoela, sozietate pribatu baten administratzaile bakar gisa agertzen baita Nafarroako Gobernuko kontseilariaren kargua edukita?

Enpresa pribatuaren karguan errelokazioa izan al da edo ala izateko premiatu behar al duzu?

Errelokazioa premiatu baduzu, egiaztatzen al duzu hura erregistroan inskribatzeko erabakia noiz hartu den?

Egoera jakinarazi al diezu lehendakariari edo Gobernu Kontseiluari?

Iruñean, 2023ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiak 2023ko irailaren 4an hartutako erabakia, zeinaren bidez aldatzen baita osoko bilkuren egutegia zehazteari, kontroleko osoko bilkuretarako interpelazioak banatzeari eta txandei buruzko erabakia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste, 2023ko irailaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

Lehena. Bilkuraldi bakoitzeko hilabete guztietako ostegunetan egitea osoko bilkurak, halako moduan non txandaka eginen baitira bilkura arruntak eta Gobernuak kontrolatzekoak; azken horietan, galderak eta interpelazioak soilik eginen dira.

Bigarrena. Interpelazioak honako arau hauen arabera sartzeari osoko bilkurako gai-zerrendan:

1.- Osoko Bilkura bakoitzean bi interpelazio sartuko dira gehienez ere, salbu eta Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, interpelazioen bat atzeratu baldin badu —Nafarroako Gobernuak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikuluko 3. apartatuak xedatzen duenaren arabera eta, ahal dela, asteleheneko 9:30ak baino lehenago—; kasu horretan, hiru interpelazio eztabaidatzen ahalko dira.

2.- Honela banatuko da hamalau ekimeneko multzo bakoitzean zenbat interpelazio dagokion talde parlamentario bakoitzari: Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari, 4; Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari, 3; EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari, 2; Geroa Bai talde parlamentarioari, 2; Nafarroako Alderdi Popularrari, 1; Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari, 1, eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari, 1.

3.- Interpelazioak honako hurrenkera honi jarraikiz sartuko dira osoko bilkurako gai-zerrendan: lehendabiziko osoko bilkuran, Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioenak; bigarrenen, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioenak;

hirugarrenean, Nafarroako Alderdi Popularra eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioenak; laugarrenean, Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearenak eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioarenak; bosgarrenean, Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioenak; seigarrenean, Geroa Bai eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioenak, eta zazpigarrenean Nafarroako Alderdi Sozialista eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioenak. txanda hori bukatzen denean, beste txanda bat abiaraziko da, hurrenkera berarekin.

4.- Talde parlamentario batek uko egiten badio edo interpelaziorik ez badu aurkezten bere txandan, txanda galduko du eta dagokion hurrengo txandara arte itxaron beharko du beste interpelazio bat aurkezteko.

Hirugarrena. Honako arau hauei jarraikiz sartzeari mozioak osoko bilkurako gai-zerrendan:

1.- Osoko bilkura bakoitzean zortzi mozio sartuko dira gehienez ere: talde parlamentario bakoitzaren bat (Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 219.2 art.) eta talde parlamentarioen ordezkariaren arabera beste bat.

2.- Zortzigarren mozio hori honako hurrenkera honen arabera sartuko da osoko bilkurako gai-zerrendan: lehendabiziko osoko bilkuran, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren mozio bat; bigarrenen, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren bat; hirugarrenean, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren bat; laugarrenean, Geroa Bai talde parlamentarioaren bat; bosgarrenean, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren bat; seigarrenean, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren bat, eta zazpigarrenean Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren bat. txanda hori bukatzen denean, beste txanda bat abiaraziko da, hurrenkera berarekin.

4. Talde parlamentario batek uko egiten badio edo moziorik ez badu aurkezten bere txandan, txanda galduko du eta dagokion hurrengo txandara arte itxaron beharko du beste interpelazio bat aurkezteko.

Laugarrena. Interpelazio, galdera edo mozio bat kasuko gai-zerrendan sartzeko epea osoko bilkura egitekoa den aurreko asteko osteguneko 17:30ean bukatuko da.

Bosgarrena. Osoko bilkurak eta batzordeen eta ponentzien bilkurak 09:30ean, 12:15ean eta

15:15ean hasiko dira, non eta Mahaiak ez duen, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, beste ordu bat ezartzen.

Seigarrena. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mahaiaren erabakia, genero-indarkeriaren aurkako elkarretaratze isilak direla-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten dizkie biktima guztiei, eta bere arbuio osoa adierazten du emakumeen kontrako indarkeria-mota oro dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak bereziki gogoan ditu eraildako emakume guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra erdietsi beharra dagoela, indarkeria-mota ororen adierazpenak amaiazi ahal izateko, eta konpromisoa hartzen du elkarrekiko errespetuan

oinarritutako berdintasunezko harremanen defentsan lan egiteko.

4. Nafarroako Parlamentuak elkarretaratze isila eginen du "Stop erasotzaileei" goiburupean bere egoitzaren atarian, 12:00etan, genero-indarkeriaren biktima bat dagoen bakoitzean, gisa horretako ekintzekiko gaitzespenaren erakusgarri eta gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraiki beharra aldarrikatzeko. Elkarretaratze horietara borondatez joaten diren parlamentari guztiek errespetatu beharko dute adostutako goiburua hori, eta ezin izanen da bestelakorik erakutsi.

5. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

PER2022047. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko

Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Behin bukatuta enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko, Zerbitzu Orokorretako buruak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda aurkeztu du. Zerrenda deialdi horren 10. oinarrian ezarritakoarekin bat moldatu da.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumeneren arabera, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak aldi baterako kontratatzeko izangaien

zerrenda –zeina honekin batera baitoa eta deialdi horren 10. oinarrian ezarritakoaren arabera moldatu baita– onestea. Izangaiak enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkotik, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko, heldu dira. Deialdia 2022ko abenduaren 15eko 143. NPAOn eta 2022ko abenduaren 27ko 259. NAOOn argitaratu zen, eta kasuko zuzenketa, berriz, 2023ko urtarrilaren 4ko 2. NPAOn eta 2023ko urtarrilaren 5eko 4. NAOOn.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako kontrataziorako zerrendak Legelarien Kidegoa

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko (deialdia 2022ko abenduaren 15eko 143. NPAOn eta 2022ko abenduaren 27ko 259. NAOOn argitaratu zen, eta kasuko zuzenketa, berriz, 2023ko urtarrilaren 4ko 2. NPAOn eta 2023ko urtarrilaren 5eko 4. NAOOn)

Deialdiaren 10. oinarrian ezarritakoarekin bat, aldi baterako kontrataziorako honako zerrenda hau osatu da:

1) Hautaprosesua ez, baina hautaprobetakoren bat gainditu duten izangaien zerrenda, honako lehentasun-ordenaren arabera antolatua:

- a. Nork gainditu duen proba gehien.
- b. Nork izan duen guztizko puntuaziorik handiena gainditutako probetan.

1.1. Proba bat gainditu duten izangaien zerrenda.

Izena	Hasierako posizioa	Deitzeko hurrenkera
ORDOKI GUARCH, IGNACIO	1	Kontrataduna
VIDAURRETA DE LA CRUZ, MIGUEL	2	1